

Donostia, 2023ko azaroaren 21a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

PREMIAZKO INTERPELAZIOA, GOE ERAIKINERA BIDERATUTAKO LURSAILEKO LURZORUEN AZTERKETARI BURUZKOA

Victor Lasa jaunak, Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Erregelamenduaren 97. artikulua babesean, PREMIAZKO INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia alkateari, Udalbatzan aztertzeko.

PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

Badirudi Groseko GOE eraikineko obrak berehala hasiko direla, perimetroa hesitzen ari baitira. Hala ere, oraindik ez dakigu mugituko diren lurak kutsatuta dauden, ez baitira beharrezko analisi kimikoak egin. Horregatik uste dugu justifikatuta dagoela interpeleazio horren premiazkotasuna.

JUSTIFIKAZIOA

Obrak hasi aurretik, ezinbestekoa da mugituko diren lurzoruak kutsatuta ez daudela egiaztatzea. Kontuan hartuta inguruan ikastetxeak eta Groseko anbulatorioa daudela, eta dentsitate handiko bizitegi-eremua dela, lurak mugitzea kaltegarria izan daiteke adingabeentzat, anbulatorioko erabiltzaileentzat eta inguruko bizilagunentzat.

Aski ezaguna da Gros auzoan lurzoru kutsatuak daudela, Ihoberen azterlanen arabera. Gainera, bizitza osoa eremu horretatik gertu pasa duten adineko pertsonen zuzeneko informazioaren bidez egiaztatu da inguru horretan lehenago egon ziren eraikinen eraipen-hondakinak pilatu zirela espazio horretan.

Bestalde, ez dakigu inguru horretako eraispen-hondakinetan zuntz-zementua (uralita) bezalako materialik zegoen, besteak beste, honako hauen estalduretan ageri baita zuntz hori: erretenak, ur-zorrotenak, ur beltzen zorrotenak, tximiniak, teilatuak, bulegoetako sabai aizunak, berokuntzako labeak eta galdarak, antzinako etxetresna elektrikoak (plantxak, sukaldea), eraikinen hormetan isolatzaile termiko gisa erabiltzen ziren xaflak eta garai batean kable elektrikoen estaldurako osagai gisa. Gaur egun kantzerigeno gisa kalifikatuta dago zuntz-zementua eta material kantzerigeno horietarako berariazko babes-ekipamenduekin (NBE) baimendutako langileek erretiratzeko dute. Ziurrenik, garai hartako eraikinek material horiek izango zituzten; izan ere, 1930etik 1985-1990era bitartean asko erabili zen eraikinetan.

GOE eraikiko den lurzatia eraispen-hondakindegira gisa erabiltzen zen garaia kontuan hartu behar dugu, garai hartan amiantoz kutsatutako eraikin asko baitzeuden (mota guztietako hiri-eraikinen ia % 90). Lurperatutako obra-hondakin horiek mugitzean, haien efektu kantzerigenoa ere berragertzen da, sorrarazitako emanazio eta hautsek eraginda.

Egiazta daitekeen informazioaren arabera, eremu horietan oinarritzko azterketa geotermiko bati lotutako prospekzioak egin dira. Azterlan horiek eremua ezagutzera dute xede. Mota horretako azterlanek informazioa ematen dute harri edo lursail finkaturik, hondarrik edo obra-hondakin dagoen jakiteko, era horretan hondaketa baloratzeko balio duen lursailaren erresistentzia teknikoa, hondaketa-obra mota, egin beharreko zimendu-mota eta lurzoru motaren balorazioa zenbatesteko, ingurumenaren ikuspegitik. Azterketa horretan egiaztatu da lursail horretan eraispen-hondakinak daudela.

Basque Culinary Center-ek eraikinaren lizitazioan erantsitako baldintza-agirian agertzen da azterlan hori, eta nahi duenarentzat eskuragarri dago.¹ Laburbilduz, frogatuta dago eraispen-hondakinak daudela lursailaren sakonera jakin batean, hondakin horien geruzaren gutxi gorabehera zein sakonera dagoen adierazten du, baita 4,8 eta 5 metro arteko lodiera duela ere, eta murriztu egiten dela luraren ezpondara hurbiltzen den heinean. Ia bost metroko lodiera duen betelan bat egin bazen, horren esan nahi du eremu horretako lurak hondakindegira gisa erabili zirela.

¹https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso426676/es_doc/index.html

Horrek esan nahiko luke Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearekin bat etorri kalifikatu behar dela lurzoru horia, eta garai batean hondakin-biltegi kontrolatu gabe gisa erabili izanaren ondoriozko kutsadura zuzendu beharko litzatekeela. Hau da, eremu horretako zaborteia hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua indarrean sartu aurretik itxi zen, eta beraz, ez da hondakindegizat jotzen. Kontzeptu horretan sartzen dira, hondakindegien epigrafe orokorraren pean, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten kokalekuen inbentarioan jasota dauden eta jarduera aipatutako dekretua indarrean jarri aurretik eten zuten kokalekuak.

Lege horren 46. artikuluan, «*Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa*» izenekoan, 3. puntuan, honako hau adierazten da: 3. – «*Dena den, lege honetan jasotako betebeharrak lurzoru batean lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egoteari edo egon izanari zor zaizkio, eta ez inbentario horretan egoteari. Inbentario hori informazio-iturri bat besterik ez da*».

4/2015 Legearen 5. artikulua 2. puntuan hau xedatzen da: «*Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharrek, lege honen ondorioetarako, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dauden edo egon diren lurzoruei ezartzen zaien araubide orokorra bete behar dute*».

Horren ondorioz, aurretiazko urrats batzuk egin behar dira edozein esku-hartze mota egiteko, eta are gehiago material horiek hondeatzea eta beste leku batzuetara mugitzea dakarten eraikuntzako esku-hartzeetan, kasu honetan bezala. Argudio hori ez luzatzeagatik 7. artikulura jotzen dut. (7. artikulua. – Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea).

Baita 22.1 eta 22.2 artikuluei ere, honela baitiote:

«22. artikulua. – *Jakinarazteko betebeharra 1. –Dela denboran luzatu den kutsatze lauso baten ondorioz, dela istripu batek edo beste gorabehera batek eraginda, substantzia kutsatzaileen eraginpean dauden lurzoruen edukitzaile edo jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek, eragin hori detektatu eta berehala eman behar diote horren berri Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari, organo horrek hartu behar diren neurriak ezar ditzan eta neurriok betetzera behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak zehaztu ditzan, Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe. Informazio hori Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari eman beharko zaio, lurzoruetan lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak egon zein ez.*

Lur-hondeaketak edo lur-mugimenduak egiten direnean lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik detektatzen bada, ekintza horien arduraduna behartuta egongo da horren berri berehala tokian tokiko udalari eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari ematera, organo horrek zer neurri hartu behar diren eta neurriok zein pertsona fisiko edo juridikoak bete behar dituen zehaztu dezan».

Azaldutako guztia kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu azterketarik, adierazpenik eta prozeduren jarraipenik gabe eraikuntza lanak egiten hasteak ingurumen-arazoak sor ditzakeela, eta inguruko biztanleek jasan ditzaketen kalteei lotutako ondorio zibilak izan ditzakeela Arazo horrek ondorio administratiboak ditu, legean eskatutako prozedurak zorrotz ez betetzeagatik, eta ondorio penalak ditu, kalteak eragiten baditu.

Legearen arabera, ingurumen-prozedura horiek nahitaez bete behar ditu lurzoruaren jabeak. Lurren lagapen hori nola artikulatu den zehatz-mehatz aztertzen ez bada, Udala bera da betebeharraren bere gain hartu behar duena.

Gertatutakoak Udal honen eskumeneko gaietan arau-hauste izan daitezkeelakoan eta Udalaren bidezko interesari kalte egiten dietelakoan, honako hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Obrak hasi aurretik, zergatik ez da egin lurzoruen analisi kimikorik?
2. Udal-gobernuaren ustez, horrela jokatzek komunitatearen segurtasuna bermatzen du?
3. Noiz egingo da lurren analisia?

Victor Lasa,

Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea